

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

URBIDE ARABAKO UR PARTZUERGOA- CONSORCIO DE AGUAS DE ÁLAVA

Amurrioko, Ayala/Aiarako udalerrietan eta Artziniega kontzeiluan 2025eko ekitaldiko lehenengo hiruhilekoko edateko uraren hornidura eta estolderia zerbitzuen prestazio-tarifei dagokien kontribuzio-errola

Amurrioko, Ayala/Aiarako udalerrietan eta Artziniega 2025ko ekitaldiko lehenengo hiruhilekoko edateko uraren hornidura eta estolderia zerbitzuen prestazio-tarifei dagokien errola prestatuta, publikoarentzat ikusgai jartzen da hamabost egun balioduneko epean, ALHAOn iragarpen hau publikatzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita, interesdunek komenigarriak kontsideratzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ditzaten.

Epe hori igarota, erreklamaziorik egongo ez balitz, errola behin betiko onartutzat emango litzateke.

Edateko uraren hornidura eta estolderia zerbitzuen prestazio-tarifen kobratze-epeak:

A) Epe boluntarioa: 2025ko ekainaren 16etik abuztuaren 16ra, biak barne.

Helbideratutako ordainagiriak baimendutako finantza-erakundeetan kargatuko dira 2025ko ekainaren 16an.

B) Kobratzeko epe exekutiboa: 2025ko abuztuaren 16tik aurrera hasiko da epe exekutiboa, errekaru exekutiboak sortuz, premia murriztu eta premia arruntekoak, Arabako Zerga Orokorri buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak adierazitako epeetan.

Hala adierazten da, guztiek jakin dezaten.

Ribabellosa, 2025eko maiatzaren 19a

Presidente

JULEN IBARROLA GOBANTES